

## Fornells-ko kobazuloak.

Menorca uhartearen iparraldean aurkitzen da Fornells. Herri honetan, tramontanaren presentzia etengabea eta sendoa da. Bertako uretan, argia ugaria denean, arroak alga fotosintetikoz estaltzen dira, beharrezko maila trofikoa biozenosi konplexuagoen garapenerako.

Baina paisaia koloretsuenak ez dira beti jakin-minezko begiradak erakartzen dituztenak.

Hareak, bere itxura mortuaren azpian, susmaezineko bizi formak ezkututzen ditu, diskretu eta mirarizkoak, sarri ñimiñoak eta ia beti konplexuak.

Harea bezala, sekretuz beteta daude kobazuloak ere. Argiak beti iluntasuna urratzeko zirrikituren bat aurkitzen dueneko unibertso ilunak. Iluntasun mantu batek inguratzen baditu soilik nabari ditzakegun distirak. Ilunak, ikusezin eta zorrotza, argia zizelkatzen du. Denak beltz dirudienean, silueta musarratuak marrazten dira urdinean, kontra-argi barreiakor eta iheskorak, ur eta gatzez elikatutako su baten txinpartak bezala.

Burbuilek argizko korridoreak zeharkatzen dituzte, arroaren irekiduran kokatutako sarrera eta irteerak, urak eta denborak eraitsi arte induskatu zituztenak. Eta korridore horiek orban koloretsuz apaindutako arroak argizatzen dituzte. Bizilekutzat erabili eta aldi berean nortasuna ematen dioten organismoak dira.

Fornells-ko kobak eraistearen ondorio dira. Urak kareharrizko materialak disolbatu zituen arroka zulatu arte. Pazientzia eta konstantzia, aldazio eta zimendurik gabeko sabaia beheara etorri arte. Argiak eta itzalak elkarren beharra duteneko bobeda, horma eta zuloak eratuz. Zenbait sarkinek argitasuna eteten eta iluntasuna lausotzen jolasten dute noizbehinka, argitasuna bilatu eta itzalengandik babesten, kanpoko mundutik datorren eta hala iragartzen duten foku liluragarri eta lazgarri baten azpian jartzen.

Baina organismo guztiak ez dira sarkinak, eta iluntasun guztia ez da amaigabea. Itzal giro honetan ere urtaro eta egunak suma ditzakegu.

Kobazuloetan, bere irekiduratik argia jarraitasunez eta intentsitate nahikoaz sartzen denean, algek substratuak kolonizatzen dituzte, eta aldi berean beste organismo batzuentzat oinarri dira. Irsten den argiaren menpe egongo da batzuk edo besteak bizi ahal izatea, baina baita uraren berritze eta partikulen sedimentazioaren menpe ere. Behar eta zorien nahasketa da bizitza.

Txinatar itzalek benetako aktoreei uzten diete lekua. Hauek espazioa bete eta argiaren zerumuga zeharkatzen dute, itzalak amildegia ezartzen duen lekuraino.

Kobazuloa, argi eta itzalen jolas lautik koral arteko animalien erretaula barrokorra igaro da. Distirak menderatu ditu kontra-argi sotilak.

Argia kolorea da, eta mugimendua. Ura jada ez da soilik ura, bizitzak iluntasunaren oihala mugitzen duenean.

Eta itzaletako lugorria lorategi zirraragarri eta korapilatsu bihurtzen da.

Estrategia eta bizi zikloen labirintua ia, espaziogatik lehiatzen diren espezieak, gupidarik gabe, baina azeri amarru eta iruzurrik gabe. Argiak agintzen du, eta itzala bere ispilua da.